

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zaintza-orduak eta pedagogia terapeutikoa gehitu dira Torre Monreal ikastetxean

Hezkuntzak ikastetxe publikoaren beharrei erantzun die, Ordenazioa, Orientazioa eta Aukera Berdintasuna Zerbitzuari dagokion eran

Larunbata, 2017.eko abenduak 9

Hezkuntza

departamentuak gehitu egin ditu ikasturte honetan Torre Monreal ikastetxe publikoak dituen zaintza-orduak eta pedagogia terapeutikoa ari diren irakasle kopurua. 17-18 ikasturtean pedagogia terapeutikoari 22 ordu gehitu zaizkio, eta 48 zaintza-ordua. Laz hasi zuen bideari jarraitu dio aurrean ere Hezkuntza

departamentuak. Izan ere, 16-17 ikasturtean irakasle bat gehitu zen lantaldetara, pedagogia terapeutikoaren ordu kopurua 353ra igo zen eta zaintza-orduak, berriz, 38 gehiago izan ziren (500 ordu guztira). Orain, pedagogia terapeutikoaren ordu kopurua 375ekoa da Torre Monrealen eta zaintza-ordua, berriz, 548.



Hezkuntzako Departamentua.

Ikasturte hasieran egin zen ordu gehiketari, gainera, beste 20 zaintza-ordua gehitu zaizkio matrikula epetik kanpo beste 4 ikasle hasi baitira eskolan. Hori dela eta, Ordenazioa, Orientazioa eta Aukera Berdintasunerako Zerbitzuak ikastetxeari zegozkion baliabideen berrikuspena egin zuen azaro hasieran. Hasiera batean egiaztatu zen ikasle ratioa gelako ez zela gela bikoizteko behar den adinakoa. Era horretan, azaroaren 22an ikastetxeko zuzendaritzaren, ikuskatzailearen eta Aniztasunari Erantzuteko Atalburuaren arteko bileran egoera aztertu ondoren, azaroaren 27an ikastetxeari jakinarazi zitzaion 20 zaintza-ordua gehiago bideratuko zirela sortutako beharrei erantzuteko. Gainera, eskatu diren gainerako perfilak baloratzen ari dira Ordenazioa, Orientazioa eta Aukera Berdintasunerako Zerbitzuan; izan ere, Nafarroako gainerako ikastetxeek ere egin dituzten eskariak hartu behar dira aintzat, Departamentuak dituen baliabideen banaketa zuzena egin ahal izateko.

Ikastetxea handitzeko lanak

Bestalde, eta prozesu luze eta zabal baten ondotik, Hezkuntza departamentuak jakinarazi du Torre Monreal Ikastetxe Publikoa handitzeko proiektuan beharrezko urratsak eman direla. Caja Navarra fundazioak okupatzen dituen lurrek ematea gauzatu da dagoeneko. Tuterako udalak

adostu du lurren ematea eta Ondasunean egin beharreko azken tramitazioaren zain, urtarilaren amaiera aldera handitze lanen proiektuak aurkeztea aurreikusi da. Dagoeneko Hezkuntza departamentuak jakinarazi dio ikastetxeko zuzendaritzari prozesuaren inguruko informazioa.

Halaber, Hezkuntza departamentuak bere ardura adierazi du parlamentuko hainbat taldek egindako salaketen aurrean. Ikastetxe zehatz baten inguruan aritu ordez, ezinbestekoa da teknikoek beharrezko lana egiten jarrai dezatela ikasturtean zehar gehitzen den matrikula aztertzen eta ikastetxe guztien beharrianak artatzeko erantzun zuzenena landu dezaten. Departamentuak, oraingoan ere ikastetxeko zuzendaritzarekin elkarlanean aritu da, sortutako egoerari egokien erantzuteko.